

Artistek jatorrizko lanak sortzeko beka

HARTZAILEAK

Edozein pertsona fisikok jaso ahal izango du beka, baldin eta, diziplina artistikoren batean arituta, oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen jarduera bat aurkezten badu eta honako betekizun hauek behar bezala betetzen eta egiaztatzen baditu:

BALDINTZAK

- Beka eskatzen den urteko urtarrilaren 1ean 18 urte beteta izatea
- Sormen proiektio nahikoa egiaztatzea, egindako erakusketen eta argitalpenen ziurtagirien edo antzeko egiaztatze bidez
- Gipuzkoako Lurralde Historikoa osatzen duten udalerrietako edozeinetan izatea administrazio egoitza, gutxienez bost urtez, azken hamar urteetan
- Oinarrietan jasotako baldintzak onartzea.

AURKEZTU BEHARREKOA

- Sormen proiektuaren dosierra
- Curriculum pertsonala eta aurreko lanen lagina
- Azken hamar urteetan gutxienez bost urtez Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriren batean ohiko bizilekua izan duela egiaztatzen duen administrazio-egoitzaren ziurtagiria
- Proiektu, programa edo jardueraren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua

- Bekaren zenbatekoa jatorrizko lanak sortzeko proiektuak sortzeko eta egiteko gastuak ordaintzeko erabiliko da.
- Beka eman eta urtebeteko epean garatuko dira proiektu artistikoak, eta, ondoren, emaitzen aurkezpen publikoa antolatuko da.
- Proiektuak lurraldeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango dira, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz.
- Proiektu irabazlearen gaiak balio demokratikoen eta aurrerapen sozialaren defentsa izan behar du ardatz.

KANPO GERATZEN DIRA

Hirugarren pertsonen enkarguz egindako proiektuak, produktu didaktiko hutsak, baita aldez aurretik euskarri elektronikoetan argitaratutako originalak ere.

Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste deialdi batzuetan kokatzea egokiagoa litzatekeen edo berariazko deialdia duten ikusentzunezko edo multimediatiko sorkuntza proiektuak.

LAN ARTISTIKOEN JABETZA

Emandako bekaren ondoriozko obren edo lanen jabetza egilearena izango da. Obra edo lan horien argitalpen edo erakusketa guztietan berariaz aipatu beharko dute Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka dela.

Balorazio irizpideak	75 puntu
Eskatzailearen adina, gazteak lehenetsiz	5
Ibilbidea, curriculum pertsonala eta aurretik egindako lanak	25
Proposamenaren, egutegiaren eta lan planaren zehaztasuna beka garatzeko epean	15
Proiektu artistikoaren interesa, kalitatea eta originaltasuna, balio demokratikoak eta gizarte- aurrerabidea islatzeari arreta berezia eskainiz	20
Genero berdintasunaren aldeko gaiak edo irudiak sartzea	5
Sortutako obra gizartean zabaltzeko proiektua	5

EPEAK

- ESKAERAK AURKEZTEKO

Azken eguna: 2023-05-15

- ZURIKETA AURKEZTEKO

Beka jaso duen proiektua garatzeko, proiektua gauzatu dela justifikatzeko eta azken ordainketarako eskabidea aurkezteko epea deialdia egin eta hurrengo urteko urriaren 30ean amaituko da

- ORDAINKETA

Beka bi zatitan ordainduko dira: %50 ebazpenarekin batera eta gainerako %50a beka baliatzeko aldia amaitzean ordainduko da

TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>). Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hau K bulegoak egindako laburpena da.

Araudi aplikagarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da eta komeni da arretaz irakurtzea eskaera egin baino lehen:

Beka honen xehetasun guztiak araudia kontsulta daitezke:

[2023ko apirilaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin.

T 943 11 33 43 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / www.kbulegoa.eus

Santa Teresa komentua

Elbira Zipitria bidea 1
20003 Donostia

K
B
U
L
E
G
O
A



Astehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00

* Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.

Puntuaziorik handiena lortzen duen proiektuari emango zaio beka.

40 puntu lortzen ez dituzten eskabideak baztertu egingo dira.